**2024KO APIRILAREN 25EAN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIAREN AKTA.**

**ACTA DE LA SESION ORDINARIA CELEBRADA POR EL AYUNTAMIENTO PLENO EL 25 DE ABRIL DE 2024**

| | |
|---|---|
| **LEKUA**: Beasaingo Udaletxea | **LUGAR:** Ayuntamiento de Beasain |
| **ARETOA**: Batzar Aretoa | **LOCAL**: Salón de Plenos |
| **EGUNA**: Hogeita bosta | **DIA**: Veinticinco |
| **HILABETEA**: Apirila. | **MES:** Abril. |
| **URTEA**: Bi mila eta hogeita lau. | **AÑO**: Dos mil veinticuatro |
| **HASIERAKO ORDUA**: Arratsaldeko seietan. | **HORA DE COMIENZO**: Dieciocho horas. |
| **BATZARRALDIAREN IZAERA**: Ohikoa. | **CARACTER DE LA SESION**: Ordinaria. |
| **DEIALDIA**: Lehena. | **CONVOCATORIA**: Primera. |
| **OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Hamazazpi (17) | **NUMERO DE MIENBROS QUE LA COMPONEN**: Diecisiete (17) |

**UDALBURUA / PRESIDENTA**:
LEIRE ARTOLA UGALDE

**BILDUAK / REUNIDAS/OS**:

EAJ-PNV

- ADUR UGARTEMENDIA LEUNDA
- AINHOA ARRESE ARRATIBEL
- MARIOLA PASCUAL PAREDES
- EDORTA DIAZ DEL RIO
- MARIA ELENA RUIZ ZABALA
- MICHEL VENTUREIRA IRIZAR
- OLATZ ARRESE IMAZ
- AITOR ALDASORO ITURBE

BEASAINGO EH BILDU

- HASIER AGIRRE ELKOROBEREZIBAR
- NEREA MANZISIDOR MENDIZABAL
- YOLANDA HERNANDEZ RODRIGUEZ
- IKER URTEAGA REBOLLAR
- AITOR URDANGARIN IRASTORZA

Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak

- EVA ALVAREZ ATANES
- ANGEL REDONDO FERNANDEZ

ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE

- WESLEY ARITZ CORSITTO AGIRRE

**IDAZKARIA / SECRETARIA:**
ITZIAR AROZTEGUI APAOLAZA

Bileran ere parte hartu dute Lurdes Alegria Lasa Kontuhartzaileak eta Lurdes Auzmendi interpretariak.

En la reunión también ha participado la interventora Lurdes Alegría Lasa y la intérprete Lurdes Auzmendi.

**1.- AURREKO AKTA**. 2024ko otsailaren 29ko aktaren onespena.

**1.- ACTA ANTERIOR**. Aprobación del acta del 29 de febrero de 2024.

2024-02-29ko aktaren berri eman ondoren Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak udal taldearen bozeramaileak esan du, beraiek TAO ordenantza onartzearen aurka azaldu zirela eta abstentzioa jartzen duela.

La portavoz del grupo municipal Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, tras dar cuenta del acta del 29-02-2024, dice que ellos se opusieron a la aprobación de la ordenanza de OTA y pone que se abstuvieron.

Zuzenketa hori egitearen baitan, akta aho batez onartu da.

Se aprueba el acta por unanimidad con la condición de hacer dicha corrección.

**2.- ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO PROPOSAMENAK**:

**2.- PROPUESTAS DE LA COMISIÓN DE ORGANIZACIÓN**:

a.- KREDITU ALDAKETAK: 2. KREDITU GEHIGARRIEN ESPEDIENTEA. 2024CRAD0002

a.- MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS: EXPEDIENTE DE CRÉDITOS ADICIONALES 2.

Antolakuntza batzordean tratatu den Alkatearen proposamenaren berri eman da:

Se da cuenta de la propuesta del Alcalde tratada en la comisión de organización:

“*GASTUAK ETA KREDITU ALDAKETA EGITEKO PROPOSAMENA*

*Zerrendatutako gastuak gauzatzea premiazkoa denez -horien gauzatzea ezin baita atzeratu-, zerbitzu horiek egiteko erritmoa eteteak edo, hala badagokio, horien kudeaketa mailak behera egiteak kalte handiak sortuko bailituzke, eta hauek finantzatzeko aurrekontu kredituak nahikoak ez direla edo krediturik ez dagoela kontuan hartuz, proposamen hau egin da indarrean dagoen aurrekontu egiturari egokituta.*

*“PROPUESTA DE GASTOS Y MODIFICACIÓN DE CRÉDITO*

*Dada la urgencia en la ejecución de los gastos enumerados, cuya ejecución no puede demorarse, dado que la interrupción del ritmo de prestación de estos servicios o, en su caso, la disminución de sus niveles de gestión, y la insuficiencia o inexistencia de créditos presupuestarios para su financiación, causaría importantes perjuicios, se formula la presente propuesta ajustándose a la estructura presupuestaria vigente.*

| ***Aurrekontuko kontu saila/*** *Partida* ***presupuestaria*** | *Kontzeptua/ Concepto* | *Egungoak/ Actuales* | *Aldaketak/ Modificaciones* | *Behin betikoak/ Definitivos* |
|---|---|---|---|---|
| | | | | |
| *0390.624.153.40.01* | *Obra lantaldearentzat ibilgailua/ Vehículo brigada obras* | *8.182,00* | *119.000,00* | *127.182,00* |
| *0350.601.171.00.02* | *Oria ibaiko ibilbidea/ Camino río Oria* | *0,00* | *575.000,00* | *575.000,00* |
| *0390.227.163.00.01* | *Bide garbiketa/Limpieza viaria* | *1.169.300,00* | *200.000,00* | *1.369.300,00* |
| *0110.227.327.00.04* | *Beste enp.: Bizikidetza memoria lanketa /Convivencia y memoria* | *0,00* | *15.800,00* | *15.800,00* |
| *0110.227.327.01.04* | *Beste enp.: Giza eskubideen urraketa lanketa/vulnerac. Derechos humanos* | *0,00* | *12.250,00* | *12.250,00* |
| *0240.226.338.10.06* | *Jarduera soziokulturalak: Jaiak/ fiestas* | *82.800,00* | *1.815,00* | *84.615,00* |
| *0110.470.420.00.01* | *GOIEKI kuota* | *150.000,00* | *6.500,00* | *156.500,00* |
| *0110.226.920.01.03* | *Agerkariak / Publicaciones* | *0,00* | *3.300,00* | *3.300,00* |
| *0240.227.432.00.04* | *Igartza kudeaketa/ Gestión Igartza* | *90.500,00* | *14.000,00* | *104.500,00* |
| *0380.601.166.00.01* | *Azp. eta urb. Garingo saneamendua/ Saneamiento Garín* | *0,00* | *365.000,00* | *365.000,00* |
| | | | | |
| | | *1.500.782,00* | *1.312.665,00* | *2.813.447,00* |

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak), esan du beste batzuetan aipatu duten bezala prozedurarekin ez daudela ados baina abstenitu egingo direla premiazko puntu batzuk daudelako.

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Gu ere abstenitu egingo gara, ez proiektuen aurka egoteagatik, baizik eta betidanik salatzen dugun planifikazio ezagatik. Kopuru handiko kreditu aldaketa onartzea proposatzen zaigu eta horri gehitu behar zaio Alkateak bere eskumenez ere beste kreditu gehigarri batzuk onartu dituela. Ea 2 milioi kreditu aldaketaz ari gara. Horri gehitu behar zaio kontuhartzailearen txostenean egiten den aipamena, hau da, momentu honetan Beasaingo Udalak egonkortasuna eta gastu araua ez lituzkeela beteko, nahiz eta jakin egun arau hauek indarrean ez daudela.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Legeak aintzakotzat hartzen dituen tresnak dira proiektuak aurrera eramateko. Batzuk aurrekontuan txertatutako partidak ziren. Hirigintzako proiektuak epe luzekoak izaten dira eta urte batean inkorporatu arren hurrengo urtean galdu eta berriro sortu

En el turno de intervenciones los asistentes exponen las siguientes opiniones:

Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) dice que como han comentado en otras ocasiones no están de acuerdo con el procedimiento pero que se abstendrán porque hay algunos puntos urgentes.

Hasier Agirre Elkoroberezibar (Beasaingo EH Bildu): "Nosotros también nos vamos a abstener, no por estar en contra de los proyectos, sino por la falta de planificación que denunciamos desde siempre. Se nos propone aprobar una modificación de crédito de gran cuantía, a lo que hay que añadir que la Alcaldesa también ha aprobado otros créditos adicionales por sus competencias. Estamos hablando de casi 2 millones de modificación de crédito. A ello hay que añadir la mención que se hace en el informe de la Interventora, a que en este momento el Ayuntamiento de Beasain no cumpliría con la regla de estabilidad y gasto, a pesar de saber que en la actualidad estas normas no están vigentes. "

La Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): "Son instrumentos que recoge la ley para llevar adelante los proyectos. Algunas eran partidas incorporadas al presupuesto. Los proyectos urbanísticos suelen ser a largo plazo y aunque se incorporen en un añoal siguiente se tienen que perder y volver a

behar izaten dira. Proiektuak aurrera eramateko helburuarekin eta gerakina dugunez, proposamen hau egiten dugu.”

crear. Con el fin de llevar a cabo los proyectos y teniendo un remanente, hacemos esta propuesta. "

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 9 (EAJ-PNV)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 8 (Beasaingo EH Bildu, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, Elkarrekin Podemos Ezker Anitza / IU-Alianza Verde)

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin ondorengo erabakia hartu da:

Tras realizar la votación se obteniene el siguiente resultado:

Votos a favor: 9 (EAJ-PNV)
Votos en contra: 0
Abstenciones: 8 (Beasaingo EH Bildu, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, Elkarrekin Podemos Ezker Anitza / IU-Alianza Verde)

En consecuencia, se adopta el siguiente acuerdo con la mayoría absoluta:

1.- 1.312.665,00 euroko zenbatekoaz kreditu aldaketa hasiera batean onartzea, kapituluka honela laburtzen dena:

1.- Aprobar inicialmente la modificación de créditos por importe de 1.312.665,00 euros, que se resume por capítulos del siguiente modo:

**GASTUEN GEHIKUNTZA** **INCREMENTO DE GASTO**

| Kap. | Izena | Euro |
|---|---|---|
| 2 | Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak | 247.165,00 |
| 4 | Transferentzia arruntak | 6.500,00 |
| 6 | Inbertsio errealak | 1.059,000,00 |
| **GASTUEN GEHIKUNTZA / INCREMENTO GASTO** | | 1.312.665,00 |

**SARRERAK** **INGRESOS**

| Kap. | Izena | Euro |
|---|---|---|
| 8 | Finantza aktiboak | 1.312.665,00 |
| | **FINANTZIAZIOA** | 1.312.665,00 |

2.- Aipatutako akordioa jendaurrean jartzea, 15 eguneko epean bidezkoak diren alegazioak aurkeztu ahal izateko. Alegaziorik jasoko ez balitz, behin-betirako onartutzat emango da.

2.- Someter a exposición pública por espacio de 15 días al efecto de presentar alegaciones, entendiéndose definitivamente aprobado si no se presentara reclamación alguna.

b.- PERTSONALAREN ORDAINSARIAK: 2023KO ORDAINSARIEN IGOERA. 2023PEBO0021

Antolakuntza batzordearen proposamenaren berri eman da:

b.- RETRIBUCIONES DEL PERSONAL: INCREMENTO DE RETRIBUCIONES 2023.

“*Gaia: 2023ko ordainsarien igoera akordio proposamena.*

*AURREKARIAK*

*Lehenengoa.- 2022.12.24an, 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legea argitaratu zen BOEn.*

*Lege horrek, III. tituluko I. kapituluan, sektore publikoaren zerbitzuko langileen gastuak arautzen ditu, eta, zehazki, 19. artikuluan, 2023ko ekitaldirako ordainsari-igoeren mugen gaia jorratzen du, honako hau arautuz:*

*"19. artikulua. Jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa, sektore publikoaren zerbitzuko langileen gastuei dagokienez. (que) Bi. 1. 2023. urtean, sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsariek ezin izango dute ehuneko 2,5etik gorako igoera orokorrik izan, 2022ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, alderatutako bi aldiak homogeneoak izanik, bai langile-kopuruari bai antzinatasunari dagokienez.*

*2. Halaber, hala badagokio, honako igoera hauek aplikatuko zaizkie 2022ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariei, eta 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dituzte ondorioak:*

*a) Kontsumoko Prezioen Indize Harmonizatuaren (KPI) bilakaerari lotutako igoera. 2022ko IPCAren eta 2023ko iraileko IPCA aurreratuaren batura ehuneko 6 baino handiagoa bada, gehienez ehuneko 0,5eko ordainsari-igoera gehigarria aplikatuko da.*

*Ondorio horietarako, Estatistikako Institutu Nazionalak (EIN) 2023ko iraileko IPCA aurreratuaren datuak argitaratu ondoren, igoera hori aplikatzea onartuko da Ministro Kontseiluaren erabaki bidez, eta erabaki hori BOEn argitaratuko da.*

*<u>b) Barne Produktu Gordin (BPG)</u>*

Se informa la propuesta de la Comisión de Organización:

*“Asunto: propuesta de acuerdo incremento retribuciones 2023.*

*ANTECEDENTES*

*Primero.- El 24.12.2022 se publicó en el BOE la Ley 31/2022, de 23 de diciembre, de Presupuestos Generales del Estado para 2023.*

*Esta Ley, en su Título III, Capítulo I, regula los gastos del personal al servicio del sector público y, en concreto, en su artículo 19, aborda la cuestión de los límites de los incrementos retributivos para el ejercicio 2023, regulando lo siguiente:*

*"Artículo 19. Bases y coordinación de la planificación general de la actividad económica en relación con los gastos de personal al servicio del sector público. (que) Dos. 1. En el año 2023 las retribuciones del personal al servicio del sector público no podrán experimentar un incremento global superior al 2,5 por ciento con respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2022, en términos de homogeneidad para los dos períodos de la comparación, tanto por lo que respecta a efectivos de personal como a la antigüedad del mismo.*

*2. Asimismo, con efectos de 1 de enero de 2023, se aplicarán, en su caso, los siguientes incrementos sobre las retribuciones vigentes a 31 de diciembre de 2022:*

*a) Incremento vinculado a la evolución del Índice de Precios al Consumo Armonizado (IPCA). Si la suma del IPCA del año 2022 y del IPCA adelantado del mes de septiembre de 2023 fuera superior al 6 por ciento, se aplicará un incremento retributivo adicional máximo del 0,5 por ciento.*

*A estos efectos, una vez publicados por el Instituto Nacional de Estadística (INE) los datos del IPCA adelantado del mes de septiembre de 2023, se aprobará la aplicación de este incremento mediante Acuerdo del Consejo de Ministros, que se publicará en el BOE.*

*nominalaren bilakaerari lotutako igoera 2023an. BPG nominalaren igoera Gobernuak aurrekontu-lege hau egiteko taula makroekonomikoan zenbatetsitakoaren berdina edo handiagoa bada, ehuneko 0,5eko ordainsari-igoera osagarria aplikatuko da.*

*Ondorio horietarako, Estatistikako Institutu Nazionalak 2023ko BPGren aurrerapen-datuak argitaratu ondoren, gehikuntza hori aplikatzea onartuko da Ministroen Kontseiluaren erabaki baten bidez. Erabaki hori BOEn argitaratuko da .*

*Agindu horretan xedatutakoaren arabera, 2024/01/30ean, Estatistikako Institutu Nazionalak Barne Produktu Gordin (BPG) nominalaren bilakaeraren 2023ko datua argitaratu zuen, lege horretako 19. Bi 2 b) artikuluan jasotakoa bete zelarik, hau da, % 0,5eko ordainsari-igoera osagarria izateko nahitaezko baldintza, 2023.01.1etik aurrera.*

*Era berean, eta Legeak berak bere artikuluetan jasotzen duen bezala, Ministroen Kontseiluak, 2024ko otsailaren 6an egindako bilkuran, gehikuntza osagarri hori aplikatzea erabaki zuen, eta erabaki hori Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (BOE 2024/02/08).*

*Bigarrena.- Hori guztia ikusita, eta 31/2022 Legeak ordainsarien arloan izan ditzakeen interpretazioak argitze aldera, EUDELek egokitzat jotzen du euskal udalei honako GOMENDIO hau ematea:*

*"2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19. Bi. 2. B) artikuluan aurreikusitako sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsarien % 0,5eko igoera osagarria onartzea. Igoera hori 2022ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariei aplikatuko zaie, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin."*

*c) Incremento vinculado a la evolución del Producto Interior Bruto (PIB) nominal en el año 2023. Si el incremento del PIB nominal igualase o superase el estimado por el Gobierno en el cuadro macroeconómico que acompaña a la elaboración de la presente ley de Presupuestos, se aplicará un aumento retributivo complementario del 0,5 por ciento.*

*A estos efectos, una vez publicados por el Instituto Nacional de Estadística los datos de avance del PIB de 2023, se aprobará mediante Acuerdo del Consejo de Ministros la aplicación de dicho incremento. Este acuerdo se publicará en el BOE.*

*De acuerdo con lo dispuesto en dicha Orden, el 30/01/2024 el Instituto Nacional de Estadística publicó el dato de la evolución del Producto Interior Bruto (PIB) nominal a 2023, 19 de dicha Ley. Que se cumplió lo recogido en el artículo 2 b), requisito indispensable para tener un incremento retributivo adicional del 0,5% a partir del 1/01/2023.*

*Asimismo, tal y como recoge la propia Ley en su articulado, el Consejo de Ministros, en su sesión del día 6 de febrero de 2024, acordó la aplicación de este incremento adicional, que fue publicado en el Boletín Oficial del Estado (BOE 08/02/2024).*

*Segundo.- A la vista de todo ello, y con el fin de clarificar las posibles interpretaciones de la Ley 31/2022 en materia de retribuciones, EUDEL considera oportuno realizar la siguiente RECOMENDACIÓN a los Ayuntamientos vascos:*

*"Ley 31/2022, de 23 de diciembre, de Presupuestos Generales del Estado para el año 2023. Dos. 2º. Aprobar el incremento adicional del 0,5% de las retribuciones del personal al servicio del sector público previsto en el artículo B). Este incremento se aplicará a las retribuciones vigentes a 31 de diciembre de 2022, con efectos de 1 de enero de 2023. "*

*Tercero.- El 27 de febrero de 2024 se publicó en el BOPV la RESOLUCIÓN 25/2024, de 23*

*Hirugarrena.- 2024ko otsailaren 27an, EHAAn argitaratu zen 25/2024 EBAZPENA, otsailaren 23koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez xedatzen baita argitara ematea Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren zerbitzuko langileen lansarien % 0,5eko igoera gehigarria 2023. urterako onartzen duen erabakia. Zehazki,*

*"Hirugarrena.- 2023 urtean, lanpostu-maila bakoitzean 12 hilekori dagokion destino-osagarriaren zenbatekoa. "*

*Laugarrena.- 2024ko apirilaren 12ko bileran, Estatuko aurrekontu orokorretan 2023rako jasotako soldata-igoeren eta EUDELen gomendioaren berri eman zuen enpresa-batzordeak.*

*Aurrekariak ikusita, honako hau erabaki du,*

*Antolakuntza Batzordeak 2024ko apirilaren 18an egindako bileran Udalbatzari ondorengo akordio proposamena egitea.*

*AKORDIO PROPOSAMENA*

*Lehenengoa.- Udal Langile publikoen ordainsariak %0,5an handitu 2023ko urtarrilaren 1eko efektuekin*"

*de febrero, del Director de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento, por la que se dispone la publicación del Acuerdo por el que se aprueba el incremento adicional del 0,5% de las retribuciones del personal al servicio del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el año 2023. En concreto,*

*"Tercera.- Durante el año 2023, la cuantía del complemento de destino correspondiente a 12 mensualidades por cada nivel de puesto."*

*Cuarto.- En reunión de 12 de abril de 2024, el Comité de Empresa informó sobre los incrementos salariales recogidos en los Presupuestos Generales del Estado para 2023 y la recomendación de EUDEL.*

*A la vista de los antecedentes,*

*La Comisión de Organización en reunión celebrada en fecha 18 de abril de 2.024, acuerda someter a la consideración del Ayuntamiento Pleno la siguiente,*

*PROPUESTA DE ACUERDO*

*Primero.- Incrementar las retribuciones del personal empleado público municipal en un 0,5% con efectos del 1 de enero de 2023."*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

En el turno de intervenciones los asistentes se han mostrado de acuerdo con la propuesta.

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): "No va ser ninguna sorpresa. Siempre hemos intentado actuar coherentemente. Nuestro parecer no ha cambiado. Sobre el incremento de las retribuciones del personal estamos a favor, pero sobre las retribuciones de los órganos de gobierno y concejales, ya en el pleno de julio nos posicionamos en contra por ser elevadas y ahora también votaremos en contra."

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): "Gauza berdina hamaika aldiz ez dugu esango. Beraz bozketara pasatuko gara."

Hasier Agirre Elkoroberezibar (Beasaingo EH Bildu): "no vamos a repetir lo mismo una y otra vez. Así que pasaremos a la votación. "

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

Realizada la votación se aprueba por unanimidad.

c.- GOBERNU-ORGANOEN ETA ZINEGOTZIEN ORDAINSARIAK, ARDURALDI OSOA ETA PARTZIALA ETA TALDE POLITIKOEN ESLEIPENAK ETA KALTEORDAINAK KIDE ANITZEKO ORGANOETARA BERTARATZEAGATIK: 2023KO ORDAINSARIEN IGOERA. 2023PEBO0021

Antolakuntza batzordearen proposamenaren berri eman da:

*"AURREKARIAK*

*I.- Gobernu organo eta zinegotzien ordainsariei dagokionez, udalbatzak, 2023ko uztailaren 6an egindako ohiko bilkuran, erabaki zuen zehaztea alkatearen dedikazio esklusiboko araubidea, lehen alkateordearen dedikazio araubidea, % 100ekoa eta bigarren alkateordearen dedikazio araubidea % 100ekoa.*

*Ordainsariak ezartzeko, 7/2018 Foru Arauaren 5. xedapen gehigarrian xedatutakoa hartu zen erreferentziatzat, eta, zehazki, Eusko Jaurlaritzako zuzendariarena, 10.001 eta 20.000 biztanle bitarteko udalerriei baitagokie, eta kargu horren modu berean eguneratuko da.*

*Aldi berean. Udalbatza Osoak, 2023ko uztailaren 6ko egindako aparteko bileran, Talde politikoen asignazio eta organo kolegiatutako bileretara joateagatik kalteordainei dagokion akordioak hartu zituen. Akordioaren 6. Puntuan Diru kopuru hauek 2024tik aurrera eguneratu egingo dira kontuan izanda urte bakoitzeko Estatuko Aurrekontuaren Legea ezartzen duena funtzionarioekiko.*

*II.- Ordainsariak ezartzeko erreferentziatzat 7/2018 Foru Arauaren 5. xedapen gehigarrian xedatutakoa hartu denez, eta, zehazki, Eusko Jaurlaritzako zuzendariarena, 10.001 eta 20.000 biztanle bitarteko udalerriei dagokielako, eguneraketak kargu horren modu berean egingo dira.*

c.- RETRIBUCIONES ÓRGANOS DE GOBIERNO Y CONCEJALES CON DEDICACIÓN COMPLETA Y PARCIAL Y ASIGNACIONES GRUPOS POLÍTICOS E INDEMNIZACIONES ASISTENCIA ÓRGANOS COLEGIADOS: INCREMENTO DE RETRIBUCIONES 2023.

Se informa la propuesta de la Comisión de Organización:

*"ANTECEDENTES*

*I.- En referencia a las retribuciones de los Órganos de Gobierno y concejales con dedicación completa, el Ayuntamiento Pleno en la sesión ordinaria celebrada el 6 de julio de 2023, adoptó el acuerdo de determinar el régimen de dedicación exclusiva para el Alcalde, el régimen de dedicación del 100 % para la Primer Teniente de Alcalde y el régimen de deicación del 100% para el segundo Teniente Alcalde.*

*Para el establecimiento de las retribuciones, se tomó como referencia lo dispuesto en la Disposición Adicional 5.ª de la Norma Foral 7/2018, y en concreto la del Director del Gobierno Vasco por ser la que corresponde a los municipios con n.º de habitantes de 10.001 hasta 20.000, su actualización se efectuará del mismo modo que la de ese cargo.*

*A su vez, el Ayuntamiento Pleno en la sesión ordinaria celebrada el 6 de julio de 2023, se adoptaron acuerdos en referencia a las asignaciones a Grupos Políticos e indemnizaciones por asistencia a sesiones de órganos colegiados. En el punto 6. del acuerdo se precisa que las cantidades se actualizarán a partir de 2024, de acuerdo a lo que para el personal funcionario disponga la Ley de Presupuestos del Estado de cada año.*

*II.- Habiéndose tomado como referencia para establecer las retribuciones lo dispuesto en la Disposición Adicional 5.ª de la Norma Foral 7/2018, y en concreto la del Director del Gobierno Vasco por ser la que corresponde a los municipios con n.º de habitantes de 10.001 hasta*

III.- 2024ko otsailaren 27an, EHAAn argitaratu zen 25/2024 EBAZPENA, otsailaren 23koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez xedatzen baita argitara ematea Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren zerbitzuko langileen lansarien % 0,5eko igoera gehigarria 2023. urterako onartzen duen erabakia. Zehazki,

"Hirugarrena.- 2023 urtean, lanpostu-maila bakoitzean 12 hilekori dagokion destino-osagarriaren zenbatekoa. "

"Seigarrena.- 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera, hauek izango dira lehendakaria-ren, sailburuen, goi-kargudunen eta parekoen ordainsariak:

20.000, las actualizaciones se efectuarán del mismo modo que la de ese cargo.

III.- El 27 de febrero de 2024 se publicó en el BOPV la RESOLUCIÓN 25/2024, de 23 de febrero, del Director de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento, por la que se dispone la publicación del Acuerdo por el que se aprueba el incremento adicional del 0,5% de las retribuciones del personal al servicio del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el año 2023. En concreto,

"Tercera.- Durante el año 2023, la cuantía del complemento de destino correspondiente a 12 mensualidades por cada nivel de puesto."

“Sexto.- Las retribuciones del lehendakari, consejeros y consejeras, altos cargos y asimilados, desde el 1 de enero de 2023, serán las siguientes:

| | Soldata Hilabetea (euroak) | Guztizko ordainsaria (euroak) |
|---|---|---|
| Lehendakaria | 8.170,25 | 114.383,50 |
| Lehendakariordea | 7.671,99 | 107.407,86 |
| Sailburua | 7.283,13 | 101.963,82 |
| Sailburuordea | 6.591,40 | 92.279,60 |
| Zuzendaria | 5.620,66 | 78.689,24 |
| Euskadiko Aholku Batzorde Juridikokoko kidea | 5.620,33 | 78.684,62 |
| Lehendakari pentsioduna | 4.085,14 | 57.191,96 |
| Sailburu pentsioduna | 3.641,59 | 50.982,26 |

Aurrekariak ikusita,

Antolakuntza Batzordeak, 2024ko apirilaren 12an egindako saioan, Udalbatzari ondorengo akordio proposamena egitea erabaki du,

AKORDIO PROPOSAMENA

Lehena.- Beasaingo Udaleko arduraldi esklusiboko eta partzialeko karguen ordainsarietarako erreferentziatzat hartuko da aurrekarien II. Atalean aipatutako Eusko Jaurlaritzako zuzendariaren ordainsaria, 2023o uztailaren 6ko osoko bilkuren erabakiekin bat etorriz, eta kasu bakoitzeko ezarritako proportzioan, hau da:

Dedikazio esklusiboak:

A la vista de los antecedentes,

La Comisión de Organización en reunión celebrada en fecha 18 de abril de 2.024, acuerda someter a la consideración del Ayuntamiento Pleno la siguiente,

PROPUESTA DE ACUERDO

Primero.- Determinar que para las retribuciones de los cargos con dedicación exclusiva y parcial del Ayuntamiento de Beasain se tomará como referencia la retribución del Director del Gobierno Vasco a la que se ha hecho referencia en el apartado II de los antecedentes, de conformidad con los acuerdos plenarios de 6 de julio del 2023 y en la proporción establecida para cada caso, esto es:

• *Alkatea: % 100.*

*% 100eko dedikazioa:*

• *Lehenengo Alkateordea: Alkatearenaren % 85.*

*Bigarren Alkateordea: Alkatearenaren % 75.*

*Bigarrena.- 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, talde politikoentzako asignazioak eta kide anitzeko organoen bileretara joateagatiko kalte-ordainek % 0,5eko gehikuntza izango dute 2023ko uztailaren 6ko osoko bilkuraren erabakiarekin bat etorriz.*"

*Dedicaciones exclusivas:*

• *Alcalde: 100%.*

*Dedicación del 100%:*

• *Primer Teniente de Alcalde: 85% de la del Alcalde.*

- *Segundo Teniente de Alcalde: 75% de la del Alcalde.*

*Segundo.- Determinar que con efectos de 1 de enero de 2023, las asignaciones a los grupos políticos y las indemnizaciones por asistencia a reuniones de órganos colegiados, será de un incremento del 0,5% adicional de conformidad con el acuerdo plenario del 6 de julio del 2023."*

Gai honekiko aurreko puntuan eman dira iritziak.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 9 (EAJ-PNV)

Aurkako botoak: 8 (Beasaingo EH Bildu, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, Elkarrekin Podemos Ezker Anitza / IU-Alianza Verde).

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, proposamena gehiengo osoarekin onartu da.

Las opiniones referentes a este tema se han formulado en el punto anterior.

Tras realizar la votación se obtiene el siguiente resultado:

Votos a favor: 9 (EAJ-PNV)
Votos en contra: 8 (Beasaingo EH Bildu, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, Elkarrekin Podemos Ezker Anitza / IU-Alianza Verde).
Abstenciones: 0

En consecuencia, se aprueba la propuesta con la mayoría absoluta.

d.- <u>ONDASUNEN UDAL INBENTARIOA: 2023KO ABENDUAREN 31 DATAREKIKO EGUNERAKETA</u>. 2024EKBO0041

Antolakuntza batzordearen proposamenaren berri eman da:

"*2023ko abenduaren 31ko datarekin egindako Inbentarioaren eguneraketa onartzea proposatzen dio Antolakuntza Batzordeak Udalbatzari:*

d.- <u>INVENTARIO MUNICIPAL DE BIENES: ACTUALIZACIÓN A 31 DE DICIEMBRE DE 2023.</u>

Se informa la propuesta de la Comisión de Organización:

*La Comisión de Organización propone al Ayuntamiento Pleno la aprobaciónde la actualización del Inventario municipal a 31 de diciembre de 2023:*

| ***UDALA / AYUNTAMIENTO*** | ***Kostu historiko Coste histórico*** | ***Amortizazio Amortizac.*** | ***Neto kontablea/ Neto contable*** |
|---|---|---|---|
| ***ONDASUN HIGIEZINAK / BIENES INMUEBLES*** | ***82.796.454,77 €*** | ***30.587.864,10 €*** | ***52.208.590,67 €*** |
| *ERAIKUNTZAK / CONSTRUCCIONES* | *31.198.714,25 €* | *7.815.294,81 €* | ***23.383.419,44 €*** |
| *TERRENOAK / TERRENOS* | *11.648.952,44 €* | | ***11.648.952,44 €*** |

| | | | |
|---|---|---|---|
| *JOLASTOKIAK / PARQUES* | *4.936.579,76 €* | *1.972.176,28 €* | ***2.964.403,48 €*** |
| *BIALAK / VIALES* | *30.672.743,42 €* | *18.510.309,24 €* | ***12.162.434,18 €*** |
| *LANDA FINKAK / FINCAS RUSTICAS* | *35.067,07 €* | | ***35.067,07 €*** |
| *AZPIEGITURA / INFRAESTRUCTURA* | *4.304.397,83 €* | *2.290.083,77 €* | ***2.014.314,06 €*** |
| | | | |
| ***ERRENTA ESKUBIDEAK** / DERECHOS REALES* | ***1.251.408,23 €*** | | ***1.251.408,23 €*** |
| | | | |
| ***BALORE MOBILIARIOAK** / VALORES MOBILIARIOS* | ***695.402,81 €*** | | ***695.402,81 €*** |
| | | | |
| ***IBILGAILUAK** / VEHICULOS* | ***201.219,06 €*** | ***169.585,38 €*** | ***31.633,68 €*** |
| | | | |
| ***MOBLERIA** / MOBILIARIO* | ***4.044.646,77 €*** | ***3.091.993,58 €*** | ***952.653,19 €*** |
| | | | |
| ***ONDASUN ETA ESKUBIDE BIHUR.** / CONC. ADMINIS.* | ***1.093.027,00 €*** | | ***1.093.027,00 €*** |
| | | | |
| ***GUZTIRA** / TOTAL* | ***90.082.158,64 €*** | ***33.849.443,06 €*** | ***56.232.715,58 €*** |
| | | | |
| ***ERAIKINAK ERABIL LAGAPENEAN** / INMUEBLES CEDIDOS* | ***5.627.305,57 €*** | | ***5.627.305,57 €*** |
| | | | |
| | ***95.709.464,21 €*** | ***33.849.443,06 €*** | ***61.860.021,15 €*** |

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

En el turno de intervenciones los asistentes se han mostrado de acuerdo con la propuesta.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

Tras realizar la votación se aprueba la propuesta por unanimidad.

**3.- HERRITARRAK BATZORDEKO PROPOSAMENAK**:

**3.- PROPUESTAS DE LA COMISIÓN DE CIUDADANÍA**:

a.- Kontratazioa:

a.- Contratación:

- ZERBITZUAK KONTRATATZEA: IGARTZAKO MONUMENTU-MULTZOKO JAUREGIA, ERROTA, BURDINOLA ETA ERMITA KUDEATZEA. 2024LIKU0001

- CONTRATACIÓN DE SERVICIOS: GESTIÓN DEL PALACIO, MOLINO, FERRERÍA Y ERMITA DEL CONJUNTO MONUMENTAL DE IGARTZA, EN BEASAIN.

Herritarrak batzordearen proposamenaren berri eman da:

Se informa la propuesta de la Comisión deCiudadanía:

Ezagutzera eman dira pleguen ezaugarriak:

Se dan a conocer las características de los pliegos:

*“1.- Prozedura: irekia publizitatearekin. Lizitazio elektronikoa.*
*2.- Izapidetzea: arrunta*

*“1.- Procedimiento: abierto con publicidad. Licitación electrónica.*
*2.- Tramitación: ordinaria*

*3.- Lizitazio prezioa: 95.000,9 €, BEZ gabe.*
*4.- Egikaritze epea: Bi urte kontratua sinatzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita eta urte beteko hiru luzapen.*
*5.- Kaudimen ekonomiko, finantzarioa:*
*Urteko negozio-bolumena, kontratuaren esparruari dagokiona. Azken hiru urteetako ekitaldi oneneko negozio-bolumena izango da; kontuan hartuta enpresaburuak enpresa noiz sortu duen edo jarduerak noiz hasi dituen eta eskaintza noiz aurkeztu duen. Zenbatekoa: 142.521,34 € gutxienez.*
*6.- Kaudimen teknikoa: Azken 3 urteetan antzeko zerbitzuak eman izanaren zerrenda, kontratua gauzatzeko atxikitako teknikariak edo unitate teknikoak enpresan integratu egon zein ez eta kontratu arduradunaren identifikazioa (bi kasutan eskatuko da Europako Erreferentzia Esparruko B2 gaitasun-maila, hitzez.*

*7.- Aurkezteko epea eta lekua: 15 egunekoa kontratazionrako plataforman iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita . Lizitazio elektronikoa.*

*8.- Adjudikazio irizpideak:*
*<u>Formula automatikoen bidez baloratzen ez diren irizpideak: kudeaketa proposamena (50 puntu)</u>*
*Ekintza plana eta plangintza (20 puntu), sare sozialak (15 puntu) eta espazioen sustapen komertzial erako eredua (15 puntu).*

*<u>Formula automatikoen bidez puntuatzeko irizpideak. (50 puntu)</u>*

*- Eskaintza ekonomikoa. 30 puntu.*
*- Langileen kualifikazioa: 20 puntu*

*Bisita gidatuek kontratua ondo gauzatzeari nabarmen eragin diezaioketela kontuan hartuta, zerbitzuari atxikitako pertsonetako batek gutxienez adierazitako kualifikazioren bat izatea baloratuko da, lehenengo bi kasuetan dagokion titulua aurkeztuz eta, hirugarrenean, emandako zerbitzuen ziurtagiriaren bidez.*

*3.- Precio de licitación: 95.000,9 €, más IVA.*
*4.- Plazo de ejecución: Dos años a contar del día siguiente al de la formalización del contrato.*
*5.- Solvencia económica y financiera:*

*El volumen anual de negocios, en el ámbito al que se refiera el contrato, referido al mejor ejercicio dentro de los tres últimos concluidos, será al menos una vez y media el valor anual medio del contrato por ser su duración superior a un año. Será igual o superior a 142.521,34 €.*

*6.- Solvencia técnica: Una relación de los principales servicios o trabajos realizados de igual o similar naturaleza que los que constituyen el objeto del contrato en el curso de, como máximo los tres últimos años. Indicación del personal técnico o de las unidades técnicas, integradas o no en la empresa, adscritos a la ejecución del contrato. En ambos casos en cuanto a competencia lingüística, se le exigirá el nivel de competencia B2 del Marco Europeo de Referencia, a nivel verbal.*
*7.- Plazo y lugar para la presentación de proposiciones: **15 días naturales** contados desde el día siguiente al de la publicación del anuncio de licitación del contrato en el perfil del contratante.*
*8.- Criterios de adjucicación:*
*<u>Criterios no evaluables mediante fórmulas automáticas</u>: Propuesta de gestión (50 puntos)*
*Plan de acción y planing (20 puntos), Redes sociales (15 puntos) y modelo de promoción comercial de espacios (15 puntos).*

*<u>Criterios evaluables mediante fórmulas automáticas</u>. (50 puntos)*

- *Oferta económica. 30 puntos*
- *Cualificación del personal: 20 puntos*

*Teniendo en cuenta que las visitas guiadas pueden afectar de manera significativa a la buena ejecución del contrato, se valorará que al menos una de las personas adscritas al servicio cuente con alguna de las cualificaciones que se indican, mediante la aportación del título correspondiente en los dos primeros casos y*

*mediante certificación de servicios prestados, en el tercer caso.*

*- 10 puntu: hizkuntzak: euskara (C1 maila edo baliokidea),*
*- 5 puntu: hizkuntzak: ingelesa eta frantsesa (Hizkuntza Eskola Ofizialeko B2 maila edo baliokidea). Bakarrik hizkuntza horietako baten titulua aurkezten bada, 2,5 puntu emango zaio.*
*- 5 puntu: Esperientzia bisita gidatuak egiten.*

*- 10 puntos: Idiomas: euskera (Nivel C1 o su equivalente),*
*- 5 puntos: Idiomas: inglés y francés: (Nivel B2 de la Escuela Oficial de Idiomas o su equivalente). En caso de presentar la titulación en relación a un único idioma, se otorgarán, 2,5 puntos.*
*- 5 puntos: Experiencia en la realización de visitas guiadas.*

*9.- Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua: plika irekitzea kontratistatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.*

*9.- Lugar, día y hora para la apertura de proposiciones: la apertura de plicas se realizará en el lugar, día y hora que se indique en el perfil del contratante.*

*10.- Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatzaileek administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.*

*10.- Documentación a presentar: los licitadores deberán presentar la documentación que se indica en el pliego de condiciones administrativas.*

*11.- Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak:*

*- Lan-merkatuan emakumeek gehiago parte hartzea eta lan- eta familia-bizitza bateragarriak izan daitezen erraztea.*
*- Langabeziari aurre egitea, batez ere gazte, emakume eta luzaroko langabeenari.*
*- Lantokian prestakuntza jasotzen laguntzea.*
*- Kontratua hizkuntza-ofizialtasun bikoitzaren araubidearen mende dago.*

*Baldintza plegu teknikoan adierazten da zerbitzua zein baldintzetan ema behar den.”*

*11.-Condiciones especiales de ejecución de contrato:*

*- Favorecer la mayor participación de la mujer en el mercado laboral y la conciliación del trabajo y la vida familiar.*
*- Combatir el paro, en particular el juvenil, el que afecta a las mujeres y el de larga duración.*
*- Favorecer la formación en el lugar de trabajo.*
*- El contrato se halla sujeto al régimen de doble oficialidad lingüística.*

*En el pliego de condiciones técnicas se indica en que condiciones se deberá prestar el servicio.”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

En el turno de intervenciones los asistentes exponen las siguientes opiniones:

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “No hau apenas modificaciones respecto de lo aprobado en el pleno anterior. Nos abstuvimos por la duda que teníamos sobre la subrogación de los trabajadores. Ya se nos explicó que eso depende del convenio de aplicación. Por lo tanto, estamos a favor. ”

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Gu abstenitu egingo gara. Baldintza ekonomikoak ez dira aldatu. Esan zitzaigun enpresaren bat interesatuta egongo litzatekeela eta agian aurrekoan ez zuen

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): "Nosotros nos abstendremos. Las condiciones económicas no han cambiado. Se nos dijo que alguna empresa estaría interesada y quizá la última vez no tuvo tiempo, pero con las

denborarik izan, baina azpikontratazioekin zalantzak sortzen zaizkigu ez ote genuke mahai gainean jarri beharko genuke lanpostu finkoak sortzeko beharra eta ez ibiltzea kiroldegiarekin gertatu zitzaiguna. Ez bada inor aurkezten zerbaiten seinale da eta guri horrek argia pizten digu. Beraz, abstenitu egingo gara."

subcontrataciones nos surgen dudas sobre si no tendríamos que poner encima de la mesa la necesidad de crear puestos fijos y no andar como con el polideportivo. Si no se presenta nadie es señal de algo y a nosotros eso nos enciende la alarma. Por lo tanto, nos abstendremos. "

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Egia da kudeaketa honetan ibiltzen diren espresengana jo genuela eta mota ezberdineko erantzunak jaso genituen. Batzuk denbora falta aipatu zuten, baina hasiera batean behintzat pleguak ontzat jo zituzten. Horretaz gain beste saiakera bat egin dugu ezagutu dezaten esleipena martxan dagoela. Ikuskizun, jendaurrean jarri ondoren aurkeztuko diren. Kiroldegi eta publifikazioaren inguruan luze hitz egin dezakegu. Udalak zerbitzua legez bereganatzeko ere ezintasuna dago, baina horretaz gain irizpideak ere ezberdinak izan ditzakegu."

Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): "Es cierto que nos dirigimos a las empresas que se dedican a esta gestión y recibimos diferentes tipos de respuestas. Algunas hablaron de falta de tiempo, pero al menos en un principio daban por buenos los pliegos. Además, hemos intentado que conozcan que la adjudicación está en marcha. Habrá que ver si se presentan después de su exposición al público. Sobre el polideportivo y la publificación podemos hablar largo y tendido. También existe la imposibilidad de que el Ayuntamiento asuma legalmente el servicio, pero además podemos tener criterios diferentes."

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Tras realizar la votación se obtiene el siguiente resultado:

Aldeko botoak: 12 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, Elkarrekin Podemos Ezker Anitza / IU-Alianza Verde).

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 5 (Beasaingo EH Bildu)

Horren ondorioz, proposamena gehiengo osoarekin onartu da, aurreko plenoan onartutako lizitazioa hutsik geratu zelako lizitatzailerik ez aurkezteagatik.

Votos a favor: 12 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, Elkarrekin Podemos Ezker Anitza / IU-Alianza Verde).

Votos en contra: 0

Abstenciones: 5 (Beasaingo EH Bildu)

Como consecuencia de ello, la propuesta ha sido aprobada por mayoría absoluta, debido a que la licitación aprobada en el pleno anterior quedó desierta al no presentarse ningún licitador.

- BEASAINGO IGARTZA FUTBOL ZELAIKO TABERNA-KAFETEGIAREN USTIAKETA KONTRATATZEA. 2024KIBO0003

- CONTRATACIÓN DE LA EXPLOTACIÓN DEL BAR CAFETERÍA DE IGARTZAKO FUTBOL ZELAIA DE BEASAIN.

Herritarrak batzordearen proposamenaren berri eman da:

Se informa la propuesta de la Comisión de Ciudadanía:

"*1.- Prozedura: irekia publizitatearekin. Lizitazio elektronikoa. Mota: zerbitzu-emakida*
*2.- Izapidetzea: arrunta*

*"1.- Procedimiento: abierto con publicidad. Licitación electrónica.*
*2.- Tramitación: ordinaria.*

*3.- Lizitazio prezioa: 4.812,00 € /urteko + BEZ (ordaindu beharreko kanona)*
*4.- Egikaritze epea: Hiru urte kontratua sinatzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita eta urte beteko bi luzapen.*
*5.- Kaudimen ekonomiko, finantzarioa:*
*Urteko negozio-bolumena, kontratuaren esparruari dagokiona. Azken hiru urteetako ekitaldi oneneko negozio-bolumena izango da; kontuan hartuta enpresaburuak enpresa noiz sortu duen edo jarduerak noiz hasi dituen eta eskaintza noiz aurkeztu duen. Zenbatekoa: 80.000 € gutxienez.*
*6.- Kaudimen teknikoa: a.- Azken 3 urteetan antzeko zerbitzuak eman izanaren zerrenda, b.- taberna zerbitzuaren prestazioari atxikitako langileek ondoregoa izan beharko dute:*
*• Elikagaiak maneiatzeko lizentzia*
*• Hizkuntza gaitasunarekiko, Europako Erreferentzia Markoaren B2 gaitasun maila izatea, ahozko Trebetasunean.*
*c.- Koordinatzailea, Europako Erreferentzia Esparruko B2 gaitasun-maila, hitzez.*
*7.- Aurkezteko epea eta lekua: 15 egunekoa kontrataziorako plataforman iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita . Lizitazio elektronikoa.*
*8.- Adjudikazio irizpidea: Kanona eskudirutan, gutxienez karatulan ezarritakoa, hau da, 4.812,00 € + BEZ urtean (100 puntu).*
*9.- Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua: plika irekitzea kontratistatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.*
*10.- Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatzaileek administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.*
*11.- Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak:*
*- Emakumeen kontratazioa sustatzea; lana, bizitza pertsonala eta familia bateragarri egitea.*
*- Langabezia borrokatzea, batez ere gazteena, emakumeena eta iraupen luzekoa.*
*- Lantokian prestakuntza eman dadin sustatzea.*
*Baldintza plegu teknikoan adierazten da zerbitzua zein baldintzetan eman behar den.*"

*3.- Precio de licitación: 4.812,00 €/año más IVA (canon a abonar)*
*4.- Plazo de ejecución: Tres años a contar del día siguiente al de la formalización del contrato.*
*5.- Solvencia económica y financiera:*
*Volumen anual de negocios, referido al mejor ejercicio dentro de los tres últimos disponibles,*
*teniendo en cuenta la fecha de creación de la empresa o el inicio de las actividades y la presentación de la oferta, por importe igual o superior a 80.000 €*
*6.- Solvencia técnica: a.-Una relación de los principales servicios o trabajos realizados de igual o similar naturaleza, de los tres últimos años. b.- El personal adscrito a la prestación del servicio de bar deberá tener:*
*El carnet de manipulador de alimentos.*
*En cuanto a la competencia lingüística, el nivel de competencia B2 del Marco Europeo de Referencia, a nivel verbal.*
*c.- Coordinador/ra: nivel de competencia B2 del Marco Europeo de Referencia, a nivel verbal.*
*7.- Plazo y lugar de presentación de proposiciones: Quince días naturales contados desde el día siguiente al de la publicación de la convocatoria en la plataforma de contratación de Euskadi.*
*8.- Criterios de adjudicación: Canon en metálico, como mínimo el establecido en la carátula, esto es, 4.812,00 €/año + IVA (100 puntos).*
*9.- Lugar, día y hora para la apertura de proposiciones: la apertura de plicas se realizará en el lugar día y hora que se indique en el perfil del contratante.*
*10.- Documentación a presentar: los licitadores deberán presentar la documentación que se indique en los pliegos de condiciones administrativas.*
*11.- Condiciones especiales de ejecución:*
*- Favorecer la mayor participación de la mujer en el mercado laboral y la conciliación del trabajo y la vida familiar.*
*- Combatir el paro, en particular el juvenil, el que afecta a las mujeres y el de larga duración.*
*- Favorecer la formación en el lugar de trabajo.*
*En el pliego técnico se indican las condiciones en las que debe prestarse el servicio. "*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko iritzi hauek azaldu dituzte:

En el turno de intervenciones los asistentes exponen las siguientes opiniones:

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): "Baldintzak teknikoan, oraingoan, ordutegi aldetik beste eskakizun

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): "En cuanto a las condiciones técnicas, en esta ocasión se han establecido otras exigencias

batzuk ezarri dira eta gure zalantza da futbol zelaiko erabilera publikoa nola bermatuko den. Esleipendunak, partiduak dauden bitartean bere ardura izango du, futbol zelaia irekitzea eta ixtea, baina ordu horietatik kanpo zalantzan jartzen dugu espazio publiko hori nola erabili daiteken.”

horarias y nuestra duda es cómo se garantizará el uso público del campo de fútbol. El adjudicatario se hará cargo de la apertura y cierre del campo de fútbol mientras haya partidos, pero fuera de esas horas dudamos de cómo se puede utilizar ese espacio público. "

Alkatea andreak (EAJ-PNV: “Baldintzetan argi azaltzen da taberna irekita dagoenean beraiek arduratuko direla futbol zelaia irekitzen eta ixten eta geldituko litzateke, inolako entrenamendu edo ez ohiko partidurik ez dagoenean eta taberna itxita dagoenean zer egin futbol zelaiarekin. Helburua, orain arte bezala, irekia mantentzea da herritarrek disfrutatu eta gozatu dezaten eta Beasaingo kirol elkarte, udala eta tabernaren artean komunikazio baliabideak martxan jarri behar ditugu ireki eta ixteko. Taberna itxita dagoenean Udala eta Beasain kirol elkarteari komunikatu egin beharko dio eta gure ardura izango da eremu hori irekitzea eta ixtea.”

La Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV: "En las condiciones se explica claramente que cuando el bar esté abierto ellos serán los encargados de abrir y cerrar el campo de fútbol y faltaría determinar qué hacer con el campo de fútbol cuando no haya ningún tipo de entrenamiento o partido no habitual y cuando el bar esté cerrado. El objetivo, como hasta ahora, es mantenerlo abierto para que los vecinos lo disfruten y tenemos que poner en marcha recursos de comunicación entre la sociedad deportiva Beasain, el ayuntamiento y el bar para abrir y cerrar. Cuando el bar esté cerrado deberá comunicarlo al Ayuntamiento y a la sociedad deportiva Beasain y será nuestra responsabilidad abrir y cerrar esta zona. "

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Baldintzetan esaten zaio, ageria n jarri beharko duela bere ordutegia zein izango den. Ez badu komunikatzen, Udalak ez du ardura hartuko irekitzeko?.”

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): "En las condiciones se le dice que tendrá que poner a la vista cuál va a ser su horario. Si no comunica, el Ayuntamiento no se hace responsable de la apertura?. "

Alkatea andreak (EAJ-PNV): “Bai, Udalak jakin egin behar du eta ireki eta ixteko konpromisoa hartu.”

Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): "Sí, el Ayuntamiento debe conocer y comprometerse a abrir y cerrar."

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena, aurreko plenoan onartutako lizitazioa hutsik geratu zelako lizitatzailerik ez aurkezteagatik.

Sometida a votación, la propuesta ha sido aprobada por unanimidad, al no presentarse ningún licitador por haber quedado desierta la licitación aprobada en el pleno anterior.

b.- Dirulaguntzak emateko oinarriak:

- MENDEKOTASUNA EDO DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEK ESTIMULAZIO/ERREHABILITAZIO PROGRAMAK EGITEKO LAGUNTZA-OINARRIAK 2024. URTEA. 2024MAEL0001

b.- Bases para concesión de subvenciones:

- BASES PARA AYUDAS A PERSONAS CON DEPENDENCIA O DISCAPACIDAD, PARA LA REALIZACIÓN DE PROGRAMAS DE ESTIMULACIÓN/REHABILITACIÓN. AÑO 2024.

Herritarrak batzordearen proposamenaren berri eman da, ondorengo oinarriak onartzeko proposatuz:

*ZIOEN AZALPENA*

*Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, 17,1 artikuluan, udalerriaren eskumen propio gisa aurreikusten du: Diru-sarreren bermea eta gizarteratzea antolatzea, programatzea eta kudeatzea.*

